

## BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA  
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 3493

*95/2022 DEKRETUA, uztailaren 26koa, zeinaren bitartez aitortzen baita Euskaltzaleen Topagunea Federazioa – ETOP izeneko erakundea onura publikokoa dela.*

Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 42. artikulua dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarteak onura publikokotzat aitortu ahal izango dira, baldin eta elkarteok, beren jardueren bitartez, interes orokorra edo guztien ongia lortzen laguntzen badute, eta, horretarako, eskuzabaltasun-, altruismo-, elkartasun- eta aniztasun-balioak nabarmen gauzatzen badituzte.

Lege horren babesean, Euskaltzaleen Topagunea Federazioa – ETOP izeneko erakundeak aitormen hori emateko eskatu du. Bere ustez, onura publikokoa dela aitortzea merezi du interes orokorra sustatzen duelako euskararen erabilera normalizatzeko eta euskal hiztunen komunitate osasuntsu eta iraunkorra indartzeko jarduerak etengabe eta eraginkortasunez eginez.

Euskaltzaleen Topagunea Federazioa – ETOP izeneko erakundea Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dago (zenbakia: FD/B/00082/1997), 1997ko otsailaren 25ean emandako Ebazpena dela bide.

Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ditu bere eginkizunak.

Eratu zenetik, Euskaltzaleen Topagunea Federazioa – ETOP izeneko erakundeak beharrezko jarduera guztiak egiten ditu bere helburu nagusia lortzeko. Euskararen erabilera sustatzeko motibazio- eta kontzientziazio-lan handia egiten dute, euskaltzaleak aktibatzeke zein adin guztietako herritarrak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko ekimenen bidez.

Jarduera horiek guztiak interes orokorrekotzat jotzen ditu gizarteak, oro har.

Ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 45.2 artikulua xedatutakoarekin bat eginez, onura publikoa Gobernu Kontseiluak emandako dekretu bidez aitortuko da, gaiaren arabera egoki diren sailek proposamena egin ostean. Agindu hori betez, dagokion espedientea izapidetu da, eta sailek eta erakundeek egindako txostenak erantsi zaizkio espedienteari.

Ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren proposamenez, entitate eta erakunde interesdunek emandako txostenak ikusi ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2022ko uztailaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskaltzaleen Topagunea Federazioa – ETOP izeneko erakundea onura publikokoa dela aitortzea, bere jardueren bidez interes orokorraren alde egiten duela uste baita. Erakunde hori Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dago, FD/B/00082/1997 zenbakiarekin.

Horrekin batera, aitorpen honi dagozkion eskubideak aitortzen zaizkio, hain zuzen ere, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 43. artikuluan xedatutakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko uztailaren 26an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.